

arratabe

ARETXABALETAKO UDAL ALDIZKARIA | 14. zenbakia | 2009ko MARTXOA




Aretxabaletako
Udala

03/ KIROLA,
ABONATUEN KANPAINA

08/09 UDAL AURREKONTUAK
HERRITARREN IKUSPEGITIK

10/11 ARATZ ELKARTEA
HERRIAREN BABESEAN
BIDEA EGINEZ



Desfile ikusgarria
Aratusteetan

- 02 ARRATABEKO LEIHOTIK
- 03 BERRIAK
- 06 HAMAIKA ZER ESAN
- 08 GAI NAGUSIA
- 10 GURE ELKARTEEN AHOTIK
- 12 KULTURA AGENDA

Arratabeko leihotik



Imanol Aranzabal
Basotxo, Aretxabaletako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarte

Ateak zabalik

BASOTXO, izen xamurra eta maitagarria; benetan ondo asmatu zuten fundatzaileek gure elkarte 1982an sortu zutenean. Aretxabaletako erretiratuek elkartzeko toki goxo bat izatea nahi izan zuten, eta baita, ahal den neurrian, herriaren antolakuntzan zati bizi bat ere.

Harrezkero, urtero-urteroz hazten joan da elkarte, eta gaur egun ia 1.000 bazkide ditugu; izan ere, herriko elkarterik handiena da, eta alde handiz gainera.

Eraikina oso ondo kokatuta dago, ia herri erdian, aurrean lorategitxukuna, argia; bertara gerturatzean, leiho zabaletatik zehar han ikusiko ditugu erretiratuak taldeka kartetan jokatzeko, mokadutxo bat jaten, edo eta solasean, besterik gabe.

Beti ere autogestionatuta, geure artean hautatzen dugu elkartearen ekintzak eta kontuen ardura eramango duen batzordea; borondatezko lana, baina, gizarte gero eta berekoiago honetan gezurra badirudi ere, beti topatzen da lagutzeko prest dagoenik: "Hi, etorriko hintzake Basotxo elkartera lagunketan?", "Bai, ba; zerbait egin beharko diagu ba soziedadearen alde..."

Antolatzen diren ekintza guztietatik arrakasta handiena daukatenak bidaiak dira: egun batekoak edo aste osokoak. Gainera, mendira irteera motzak, ikastaroak, hitzaldiak, inguruko erretiratu elkar-teekin harremanak... ere egiten ditugu.

Data berezietan ere parte hartze handia izaten da: Santa Luzia eta Santo Tomas eguneko ospakizunak, 90 urte betetzen dituztenei omenaldia (ekintza benetan xamurra), oparien zozketa.

Otsailaren 28an elkarreko Zaindarien eguna ospatuko dugu: goizean salda eta meza, eta eguerdian, Baster-Alde Jatetxean bazkari ederra; eta ez da musi-

karik faltako.

Horrez gain, elkarteak bere bazkideei beste hainbat zerbitzu ere eskaintzen die, ile-apaindegia eta podologia kasu.

Erretiratu askoren pentsioak nahiko eskasak izaten direla jakinik, beti ere ahalgintzen gara ekintzen prezioak ahalik eta baxuenak izaten. Bazkideen urteko kuota ere nahiko sinbolikoa da: 6 euro, eta 85 urtetik gorakoei ez zaie kuotarik kobratzen.

"martxoaren 10ean bazkideen urteroko Batzar Orokorra izango dugu, eta aprobetxatzen ditut lerro hauek bazkide guztiak batzarrera etortzera animatzeko eta euren kezkak azaltzeko"

Aktibitate horiek horrelako diru sarre-
ra urriekin mantentzeko, udalaren lagun-
tza estimagarriarekin kontaktatzen dugu.

Bestalde, momentu honetan zenbait kezka ere baditugu: erretiratuen egoitza eraikin berrira pasatzen denean non geldituko gara gu? Ekintza berriak ere bultzatzea nahiko genuke: eskulan eta pintura tailerrak, gimnasiako lokala (beste erretiratu elkarre batzuetan ikusi dugun bezala), eta horretarako leku gehiago behar ditugu.

Bukatzeko, aipatzekoa da martxoaren 10ean bazkideen urteroko Batzar Orokorra izango dugula, eta aprobetxatzen ditut lerro hauek bazkide guztiak Batzarrera etortzera animatzeko eta euren kez-
kak azaltzeko.

Udal zerbitzuak

Udal bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Urats gain egoitza	943 79 99 11
Zaindaz gimnasioa	943 71 26 28
Kultura etxea	943 08 10 01
Udal liburutegia	943 08 10 01
Udal euskaltegia	943 79 21 68

Beste zerbitzu batzuk

Loramendi E.E.	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Musika eskola	943 08 10 01
Osasun zentroa	943 71 19 59
Postaetxea	943 79 28 31
Taxi geltokia	943 77 12 64
KZgunea	943 79 94 44



Argitaratzailea: Aretxabaletako Udala
Egilea: Aretxabaletako Udala / Arteman komunikazioa
Argazkiak: Arteman komunikazioa / Josetxo Aranzabal
Ale kopurua: 3.300
Lege gordailua: SS-179/08
Hilabetekaria



Arratabe jauregia
Otalora kalea 120550 Aretxabaleta
Tel.: 943 71 18 62
Faxa: 943 71 18 64
udala@aretxabaleta.net
www.aretxabaleta.com

berriak noticias

KIROLA

> ABONATU KANPAINA

Zainduz eta Durana kaleko kirol gune berria aprobetxatzeko deia egin die Udalak herritarrei

ARETXABALETAKO UDALAK MARTXOAREN BIAN IREKIKO DU DURANA KALEKO KIROL JARDUEREN LOKAL BERRIA. AURRERANTZEAN, BERAZ, ETA KIROLDEGI BERRIA ERAIKITZEN DUTEN BITARTEAN, HERRITARREK BI ARETO IZANGO DITUZTE KIROLA EGITEKO,

Durana 30eko kirol guneko lanak amaitzean dira eta Udalak martxoaren leheneko zenbait kirol jarduera bertara eraman nahi ditu. Era berean, 2009ko abonatu kanpaina abian jarri zuen Aretxabaletako Udalak urtarrilean, eta dagoeneko lehenengo datuak badituzte. Asier Mujika kirol teknikariak esan digunez, urte bereziak izango dira datozenak, "kontuan izan behar dugu datozen urteetan ez dugula kirol etxerik izango eta horrek eragina izango duela. Dena den, aurtengorari dagokionez, dagoeneko 802 bazkide

ditugu, eta oraindik kopuru horrek gora egin dezakeen arren, ez gara aurreko urteko abonatu kopurura iritsiko". Izan ere, 2008an 1960 abonatu zeuden Aretxabaletako kirol etxean.

Kirol jarduerak alderatuz gero, ia zko zein aurtengo datuak ez dira hain ezberdinak. "Kirol etxean jarduera ezberdinetan hileroko 280-300 bezero genituen bitartean, gaur egun 250-260 bezero ditugu eta Duranako lokalarekin kopuru horiek zertxobait igotzea espero dugu. Balorazioa, beraz, positiboa da," baikor agertu da udaleko kirol teknikaria. Jar-

Garrantzitsua da herritarrek euren kirol ohiturak mantentzea, "etorkizunean instalazio ederraz gozatzeko aukera izango dute-eta"

dueren artean, berriz, spinning eta multifitness dira arrakastatsuenak. "Aurtengo iazko eskaintzaren antzekoa badaukagu ere, Duranako lokalean jarduera berriak eskaini nahi ditugu: kapoeira, defentsa pertsonala, eta beste zenbait".

Kirola egiteko gomendioa

Udal ordezkarien nahia da kirol egarria asetzeko tresnak herritarren esku jartzea. "Kirol etxearen eraiste lanen ondoren, berriaren eraikuntza lanak etorriko dira. Eta bitartean, kirola egiten duten atxalbatarrei gomendatuko genieke kirola egiten jarraitzeko. Kiroldegi berriaren eraikuntza garaia ez dadila aitzakia izan kirola egiteari uzteko, herrian edota inguruan baditugu instalakuntza eta paraje egokiak kirola egiten jarraitu ahal izateko". Asierrentzat garrantzitsua da herritarrek euren kirol ohiturak mantentzea, "etorkizunean instalazio ederraz gozatzeko aukera izango dugu-eta"



BANDALISMOA

> KALTE MATERIALAK

Kalteak eragin dituzte Kurtzebarri Eskolan

OTSAILEAN ZENBAIT EZEZAGUN KURTZEBARRI ESKOLAKO SUKALDEAN SARTU ETA KALTE MATERIALAK ERAGIN ZITUZTEN.

Aretxabaletako Udaltzaingoak jakinarazi duenaren arabera, ziurrenik zapatu gauean sartu ziren eskolan, "igande goizean atea apurtuta zegoela adierazi baitzuen herritar batek".

Sukaldeko atea apurtu, barrura sartu, eta bertan afaldu zuten lasai asko, "bi pizaren eta zenbait edariren arrastoak utziz ospakizun horren lekuko". Bertan zegoen mikrouhina lurrera bota eta apurtu egin zuten, eta su eman zioten zakarrontziari.

Hori ez da, zoritxarrez, era honetako gertakari gertatzen den lehenbiziko aldia. Izan ere, Gabonak aldera ere sartu ziren Eskolan. Halako hartan, ordea, atzeko alde-tik sartu ziren, pertsianak igo eta kristalak apurtuz, eta kalteak ume txikiak egoten diren gelan egin zituzten.

Gertaera horien aurrean zer egin daitekeen erabakitzeko, Kurtzebarri Eskolako LHko zuzendariak eta Aretxabaletako alkateak bilera egin zuten otsailaren 12an. Bilera horretan Kurtzebarri Eskolako zuzendariak hainbat eskaera egin zizkion Aretxabaletako Udalari. Besteak beste, beste alarma batzuk jartzea eta pertsianak aldatzea aurreikusten da.



TEKNOLOGIA BERRIAK

> PUNTOS DE INFORMACIÓN CIUDADANA

Se habilitará un terminal público con internet

DURANTE LA PRIMERA FASE DISPONDRÁ DE UN PUNTO DE INFORMACIÓN CIUDADANA EN ARKUPE KULTUR ETXEA.

Los puntos de Información Ciudadana, PIC, son terminales dotados de acceso a Internet y de sistemas para facilitar el acceso a la información y la realización de gestiones con las administraciones públicas.

Permiten gestionar numerosos trámites con la administración local a través de la "tarjeta única" y realizar comunicaciones con cámara web. Poseen también un puerto USB para descargar información y cuentan con un lector de código de barras para los usos que lo requieran. Posibilitan enviar SMS gratuitos o utilizar el correo electrónico, entre otras funciones. El servicio será gratuito.

ONGIZATEA

> BERDINTASUNERAKO PLANA

Berdintasunerako lehenengo plana aurkeztu da

UDALEKO BERDINTASUNERAKO ZERBITZUAK EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNERAKO DIAGNOSTIKOAREN AURKEZPENA EGIN ZIEN UDAL ZERBITZUETAKO ARDURADUNEI.

Aurkezpenaren helburu nagusia izan zen, Plan horretan jasotzen diren helburu eta ekintzak, udaleko arlo bakoitzaren arduradunekin aztertzea eta proposamenak jasotzea.

Diagnostiko horretan jasotzen diren indar guneen artean, aipatzekoa da Gizarte Zerbitzuetatik herriko emakume talde bat sortzeko ahaleginak egin direla urteetan zehar. Baita, udaleko zerbitzu gehienek diotena ere, hau da, berdintasunerako planak eraginkorrak direla. Era berean, ahalegin handiak egiten dituztela hizkera eta irudi ez sexistak erabiltzeko, eta emakumeek parte hartu dutela euskarra eta hirigintza arloetan burututako jarduerak planifikatzen.

Indartu beharreko guneei dagokienez, bestalde, honako hauek aipatu ziren bertan: maila baxua dago udal zerbitzuetan berdintasunerako planen ezagutzari buruz, aukera berdintasunaren oinarriko kontzeptuak gutxi ezagutzen dira, eta ez da ebaluatzen jarduera edo arau batek emakumeen egoeran eta baldintzetan duen eragina.

2008ko irailean ekin zitzaion Aretxabaletako emakume eta gizonen arteko berdintasunaren egoera aztertzeari. Ondorio horiek oinarritzat hartuz diseinatu da Aretxabaletako Berdintasunerako I. Plana, datozen 3 urteetan (2009-2011) herriko emakume eta gizonen benetako berdintasuna sustatzeko eta aldarrikatzeko helburuarekin.

Plan horrek bi ardatz izango ditu: udala eta udal langileak eta herritarrek.

Carnavales de lujo

LAS CALLES DE ARETXABALETA SE LLENARON DE GENTE EL DOMINGO DE CARNAVAL, CON PARTICIPACIÓN DE MUCHÍSIMAS CUADRILLAS EN EL DESFILE QUE SE CELEBRÓ AL MEDIODÍA. EL PARTO MÁS ÉXITOSO SE LLEVO EL PRIMER PREMIO DEL CONCURSO DE CUADRILLAS.



Las cuadrillas de Aretxabaleta se volcaron, un año más, en los carnavales más exitosos del Alto Deba. La sala de partos, con parturienta y recién nacido incluido, fue el ganador del concurso de disfraces y el segundo premio se lo llevaron Don Quijote y Sancho panza, con toda su cuadrilla. Los de Tío Pepe también se llevaron un premio. Pero, además, los atxabaltarras pudieron disfrutar de las canciones de Abba, de los bomberos de la UDA, de una caravana llegada desde el oeste americano y hasta de un escaparate animado.



El concurso de cuadrillas infantiles también estuvo muy reñido. Vencieron las ratoncitas, pero el premio se lo merecieron todos los jóvenes que desde muy temprano animaron las calles de Aretxabaleta.



El escaparate animado. La imaginación de los atxabaltarras no tiene límites y para muestra un botón. Las jovencitas de la imagen dieron vida a un escaparate en la calle Durana.



No faltaron a su cita. Un año más los de la imagen no faltaron a su cita, y ya se han convertido en unos clásicos. ¿Que nos ofrecerán el año que viene? Ya queda menos.

Trafiko arauak: denok betetzekoak

JAKINA DA GERO ETA IBILGAILU GEHIAGO DAGOELA HERRIETAN, ETA HERRIKO ALDE BATETIK BESTERA JOAN BEHAR DUGUNEAN ERE, BIDEA OINEZ EGIN BEHARREAN, AUTOZ JOATEN GARELA BERTARAINO. HORREK, ASKOTAN, ARAZOAK SORTZEN DIZKIGU APARKATZEKO ORDUAN, ETA AZKENEAN, EDONON ETA EDOZELAN UZTEN DUGU AUTOA.

Ekintza horiek guztiak egiteak kalteak sor diezazkioke norberaren poltsikoari eta baita osasunari ere. Hori horrela, eta beroiek saiheste aldeira, Aretxabaletako Udalak, "herri barruko bideetako eta zirkula daitekeen lur hiritar publikoetako erabilerak, trafikoa eta ibilgailuen zirkulazioa" arautzen duen Udal ordenantzaren jasotzen dituen zenbait arauen berri ematen die herritarrei.

Herri barruko zirkulazioa

Ordenantzak araututako herri barruko bideetan, gehienezko abiadura-muga 50 kilometro orduko da. Dena den, udal-agingintarietako abiadura-muga baxuagoak ezarri ahal izango dituzte hainbat bidetan, ezaugarri bereziak dituztela ikusita.

Era berean, oinezko guneetan, errei bakarreko kaleetan eta jende-pilaketa handiko kaleetan, ibilgailuek ezingo dute 10 kilometro orduko abiadura gaintitu.

Debekatuta dago, baita ere, gidatzen ari den bitartean poltsikoko telefonoa edo beste komunikazio modu edo sistemen bateko gailuak erabiltzea, komunikazioa eskuak erabili gabe eta entzungailuak edo antzeko baliabideak erabili gabe egiten denean izan ezik.

Arau-hausteak eta isunak

Derrigorrezkoa da segurtasun-uhala era-

biltzea edozein motatako ibilgailuren eserleku guztietan, instalatuta baldin badago, behinik behin. Kaskoa eta gainerako babes-elementuak ere derrigorrezkoak dira herri barruko bideetan, araututako kasu eta baldintzetan. Horren harira, debekatuta dago hamabi urtetik beherakoak ibilgailuaren aurreko eserleketan direla zirkulatzea, horretarako homologatutako gailuak erabiltzen ez badira. Era berean, debekatuta dago hamabi urtetik beherakoekin ziklomotor edo motozikletan zirkulatzea, sidekarra-ekin edo gabe, edozein bide motatan.

Oinezko guneetan, errei bakarreko kaleetan eta jende-pilaketa handiko kaleetan, ibilgailuek ezingo dute 10 kilometro orduko abiadura gaintitu.

Goian aipatu diren azken hiru arau horiek ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, eta 91tik 300 euro arteko isunaz zigortuko da, eta azken kasuan izan ezik, gainontzekoetan gidabaimenetik 3 puntu kenduko dira.

Oinezkoek errespetatu beharrekoak

Oinezkoak, aldiz, espaloitik ibiliko dira, beste oinezkoei traba edo enbarazu egin barik. Galtzada gurutzatzeko pasabide seinalezatuak erabiliko dituzte, eta horrelakorik ez badago, etxadien erpinetik, tokiarik altuenetik, gurutzatuko dute, galtzadarekiko perpendikular, eta behar besteko arretaz.

Bizikletak, bestalde, eurentzat erreserbatutako errietatik ibiltzen ez badira, galtzadatik joan behar dute, ahal dela eskuineko errietatik eta espaloitik ahal bezain gertu. Beste ibilgailu batzuentzat erreserbatutako erriak baldin badaude, erreserbatutako erriaren albokotik ibiliko dira. Herri barruko bideetan dabiltzanean, ibilgailuen gidari moduan eragiten dieten edozein motatako seinaleak errespetatu beharko dituzte. Bidegorrietan eta bizikletan ibiltzea baimenduta dagoen oinezkoentzako guneetan, seinalezatutako bideetatik ibiliko dira. Horrelakorik ez badago, ez dira oinezkoen abiadura normala baino azkarrago ibiliko. Nolanahi ere, oinezkoek lehenasuna izango dute.

Monopatin, patin, triziklo edo antzekoak erabiltzen dituztenek ezingo dute galtzadatik zirkulatu, bereziki horretara bideratuta ez dauden gune edo bideetan edo horien zatietan ez bada.





Azken hiru arau horiek ez betetzea, aldiz, arau-hauste arintzat hartuko da eta 50etik 90 euro arteko isunaz zigortuko da. Aulki gurpildunek oinezkoentzako gune-etatik zirkulatuko dute, oinezkoei enbazaruz ez egiteko moduko dimentsioak baldin badituzte. Horrela ez bada, galtzadatik ibiliko dira, eskuineko ertzetik ahalik eta gertuen eta etengabe bide-seinaleak errespetatuz. Azken arau hori ez betetzea arau-hauste larritzat joko da, eta 91tik 300 euro arteko isunaz zigortuko da.

Ingurumen arloko neurriak

Motozikletek, ziklomotorrek eta, oro har, ibilgailuek, ezingo dute 76 dezibel baino zarata handiago atera kanpo aldera, azelerazioan neurtuta, ibilgailutik gertuen dagoen gainazaletik 7,5 metrora. Era berean, debekatuta dago bide publikoan ibilgailua garbitu, koipeztatu eta konpontzea. Bakarrik baimenduko dira gidaria gidatzen ari den bitartean edo ibilgailua aparkatua dagoela ustekabean sortutako matxurak konpontzea; adibidez, gurpila zulatu edo lehertzea, motorra pizteko laguntza behar izatea etab. Bestalde, motordun ibilgailuek eta ziklomotorrek ezingo dute ihes-hodi librearekin zirkulatu, alegia, derrigorrezkoa den ez-tanden isilgailurik gabe. Hemen aipatu diren arau guztiak ez betetzea arau-hauste larritzat hartuko da, eta 91tik 300 euro arteko isunaz zigortuko da.

Edari alkoholdunei eta estupefazi-enteei buruzko arauak

Edari alkoholdun, estupefaziante, psicotropo, estimulatuak eta antzeko substantzietan arauz ezarritako tasa baino altuagoa duten ibilgailu edo bizikleta gidariek ezingo dute Ordenantza horrek arautzen dituen bideetatik zirkulatu. Halaber, ibilgailu guztietako gidariek,

goian aipatutako substantzien eraginpean dauden egiaztatze probak egin beharko dituzte, eta odolean litroko 0,5 gramo baino alkohol tasa handiago duen gidariak, edo arnastutako airean litroko 0,25 miligramo baino alkoholtasa handiago duenak, ezingo du Ordenantza horrek arautzen dituen bideetatik zirkulatu.

Ibilgailuek, ezingo dute 76 dezibel baino zarata handiago atera kanpo aldera, azelerazioan neurtuta, ibilgailutik gertuen dagoen gainazaletik 7,5 metrora.

Merkantzien garraioan aritzen diren ibilgailuetako gidariek, bestalde, baimendutako gehienezko pisua 3.500 kilogramotik gorakoa dutenen kasuetan, hain zuzen ere, ezingo dute zirkulatu odolean litroko 0,3 gramo baino alkohol-tasa edo arnastutako airean litroko 0,15 miligramo baino alkohol-tasa handiago edukiz, hala nola, bederatzi plaza-tik gorako bidaiarien garraiora bideratutakoak edo zerbitzu publikokoak; merkantzia arriskutsuak, larrialdi-zerbitzuak edo garraio bereziak.

Dena dela, gidariak, ibilgailu-mota edozein dela ere, ezingo du litroko 0,3 gramoko alkohol-tasa gainditu odolean, ezta arnastutako airean 0,15 litro miligramoko alkohol-tasa ere, gidatzeko ahalmena ematen dion baimena edo lizentzia lortu eta hurrengo bi urteetan.

Arau horiek ez betetzea arau-hauste oso larritzat joko da, eta 301etik 600 euro arteko isunaz zigortzeaz gain, 6 puntu kenduko dira gidabaimenetik

La mayoría de las denuncias de tráfico en la zona norte del municipio.

DE LAS 793 DENUNCIAS QUE SE IMPUSIERON DURANTE EL PERÍODO ABRIL-DICIEMBRE DE 2008, 373 FUERON POR ESTACIONAR SOBRE ACERAS, PASEOS O ZONAS DESTINADAS AL PASO DE PEATONES.

Las infracciones que más se cometieron fueron las siguientes: estacionar en la acera, 373 infracciones; estacionar en una zona señalizada con marca amarilla longitudinal continua, 125 infracciones, y no obedecer las señales de prohibición o restricción, 132 infracciones.

Las calles donde más infracciones se cometieron, son la calle Santakurtz, Otalora, Bedarretako San Migel Auzunea y Lausitta.

Los tres tipos de infracciones anteriormente citadas son consideradas falta leve en los artículos 94.2, 171 y 154 del RDL. 339/1990, DE 2 DE MARZO. "Ley sobre tráfico, circulación de vehículos a motor y seguridad vial" que recoge la "Ordenanza municipal, reguladora de usos, tráfico, circulación de vehículos y seguridad en vías y terrenos públicos de carácter urbano aptos para la circulación", y son castigadas con sanciones de 50 a 90 .

Se recuerda, asimismo, cuál es la diferencia entre parar y estacionar: se entiende por parada toda inmovilización de un vehículo durante un tiempo inferior a dos minutos, sin que el conductor pueda abandonarlo. No se considerará parada la detención accidental o momentánea por necesidad de la circulación. Por estacionamiento, por el contrario, se entiende toda inmovilización de un vehículo cuya duración exceda de dos minutos, siempre que no esté motivada por imperativo de la circulación o por el cumplimiento de cualquier requisito reglamentario.

Udal aurrekontuak onartu dituzte

KRISIAREN ERAGINPEAN ETA EA ALDERDIAREN KONTRAKO BOTOEKIN ONARTU DITU ARETXABALETAKO UDALAK 2009KO AURREKONTUAK. INBERTSIOAK EGITEKO IA 10 MILIOI EUROKO PARTIDA BIDERATU DUTE.



Udal aurrekontuen gaineko solasaldia izan dugu Inaxio Garro Aretxabaletako alkatearekin.

Zeintzuk dira onartu diren aurrekontuen ezaugarriak?

Aurrekontuen eraketan hiru faktore esanguratsu nabarmenduko nituzke. Batetik, etxebizitza-promozio berrien gabezia, izan ere, horren eraginez desagertu egingo da diru-iturri nagusienetakoa. Bestetik, inbertsioen atalean, kirol-etxearen proiektuak asko baldintzatzen gaitu. Era berean, egoera ekonomikoa kaskarraren ondorioz, aurrekontuari atal

gehienetan aplikatu dizkiogu murrizketak.

Aipatu duzu bizi dugun krisi egoerak eragina izan duela aurrekontuetan. Zertan igarriko dute herritarrek?

Gerrikoak estutzeko eta zentzuz jokatze beharra izan dugu. Esate baterako, 2007an etxebizitza-promozio berrietatik 5 milioi euro sartu baziren, oraingo urtean ez dugu sosik jasoko eta horrek ikaragarri baldintzatzen ditu udalaren diru-sarrerak. Gainera, Foru Aldundiak Udalari Foru-Fondotik eman ohi dion

dirutza ere dezente murriztu da. Murrizketa horiek ikusita, eta jasotzen ari garen aholkuei jarraituz, inbertsioetan ahalegin berezia egin eta gastu korranteak gutxitzeko beharra daukagu.

Zeintzuk izango dira inbertsio nagusiak?

Aretxabaletako Udalak ia 10 milioi euroko inbertsioak egingo ditu. Horiematik, jakina denez, kirol-etxea egiteko aurreten 8,5 milioi inbertituko ditugu. Gainerako inbertsioak txikiak dira: Urkulu eta bere ingururako proiektua, Lausitta auzoa txukuntzeko eta zaharbertzeko proiektua, nekazaritza arloko inbertsioak, hainbat bideragarritasun-azterketa egiteko proiektuak.

Zeintzuk izango dira partidarik deigarrienak edo berezienak?

Aurreko urteekin alderatuta berriak direlako, agian honako hauek aipatzea merezi du: Udal Musika-Banda berriro abian jartzeko asmoa dugu, teknologia berrietan 3 bluetoohe gune jarriko ditugu herrian eta Arkupen informazio-puntu bat jarriko da, atxabaltarrok mota bateko edo beste informazioa eskura dezaten. Era berean, Mondragon Unibertsitatearekin harremanetan gabiltza laster Aretxabaletan unibertsitate mailako titulazio bat eskaini ahal izateko.

Eta herriko taldeek zer nolako dirulaguntzak jasoko dituzte aurten?

lazo aurrekontuekin alderatuta, zertxobait txikiagoa izango da taldeei emango zaien kopurua, murrizketaren linea berean datorrelako. Halere, udalak ezarritu dituen baldintzak betetzen dituzten herriko taldeak ez dira laguntza barik gertuko.

2009ko Udal aurrekontua

OSOIA	17.530.910,75			Inbertsio aipagarrienak:	
Administrazio orokorra	1.231.941,97	Kale garbiketa	338.850,00	Kirol etxe berria	8.567.280,03
Hiritarren segurtasuna eta trafikoa	277.010,25	Ingurumena	546.365,28	Proiektuak	100.000,00
Familia eta Elkarbizitza programa	406.062,00	Kultura - Zerbitzu orokorrak	224.990,79	Urkuluko proiektua	250.000,00
Informazio, Balorazio eta		Kultur-Etxea	526.000,00	Lur sailen erosketa	160.000,00
Orientazio progr.	306.235,74	Kirolak-Aisialdia -		Lokal baten erosketa	185.573,16
Enplegu sustapena	224.721,35	Zerbitzu orokorrak	353.545,13	Nekazal arloko inbertsioak	100.000,00
Hezkuntza	311.541,00	Jaiak	225.800,00	Jolas Parkeen ekipamendu berria	60.000,00
Parkeak, lorategiak	241.000,00	Errepideak eta hiri-bide		Bedoña-Larrino ibilbidea	
Ur hornikuntza eta banaketa	393.065,62	publikoak	402.670,22	errekuperatu	70.000,00
Hondakin kudeaketa	406.579,80	Nekazaritza garapena	185.522,25	Kultura ekipamendua plazan	36.200,00



JOSU MENDIETA
Aozaratzako auzo alkatea

“Aurrekontuen arloan atxabaltar kopuru handi baten iritziak ez dira kontuan hartu”

Aretxabaletako Udalak 2009ko aurrekontua onartu du. Nolako aurrekontuak iruditu zaizkizu?

Nire ustez, txarrena da, udal bizi-zako beste arlo guztietan bezala, aurrekontuen arloan ere, atxabaltar kopuru handi baten iritziak ez direla kontuan hartu, eta horrek defizit demokratiko itzela suposatzen du.

Gehituko zenioke zerbait aurrekontuari?

Baserri eremuan bizi naizen alde-tik, gustatuko litzaidake gure arloko gaiak dagokienez, baserriarren iritzia kontuan izatea. Izan ere, nire ustez kaleko ikuspegiak baloratzen dira gure premiak, guri galdetu gabe. Baserri eremuaren gaineko gaiak aztertzerakoan udalak ezer egin aurretik gutxienez kontsultatu egin beharko liguke bertan bizi garenoi.

Zer dago soberan?

Modu orokorrean, alperrik egiten diren gastu guztiak kenduko nituzke, alderdiek kobratzen duten dirua, adibidez. Murrizketa horiek eginda, probetxuzko egitasmoak jarriko nituzke abian.

“Krisi garaian politika sozialak bultzatzeko eskatuko nuke”

MAIDER GARAI
Pausoka Haur Eskolako irakaslea



Nolako aurrekontuak iruditu zaizkizu?

Diru asko da eta ez dakit gero herrian dirutza horren erabilera benetan igartzen den. Zenbait partida erabat ezezagunak egiten zaizkit, eta hortaz, oso zaila da iritzi bat ematea. Era berean, esango nuke gure herriko erdialdetik kanpo dauden parke eta lorategiak ez daudela oso txukun. Kale garbiketan ere diru asko gastatzen da eta ez da gehiegi nabarmentzen. Gaineratuko nuke, proiektu asko egin direla azken urteotan eta horietako askok aldaketak jasan dituztela urte gutxira, moldaketak eta konponketak. Horren haritik eskatuko nioke udalari egin ditzala behin betiko proiektuak, eta ez urte batetik bestera adabakiak jarri behar zaizkien horietakoak.

Gehituko zenioke zerbait aurrekontuari?

Alkateak dio krisi garaian udalak gerrikoa estutu eta zentzuz jokatu behar duela. Beraz, zenbait proiektu ez nituzke egingo. Krisi garaian gaudela kontuan izanda eskatuko nuke Urkuluko proiektua beste momentu baterako uzteko, eta partida horrekin politika sozialak bultzatzeko. Bestalde, Arkupe kultur etxean ekintzak antolatzen jarraitzea animatzen dut udala, eta herrigintzan ere ikusten da ari direla lanean. Hori positiboa da.

Zer dago soberan?

Konturatu naiz herriko taldeei bideratutako partida murriztu egin dutela, eta uste dut mantendu egin beharko luketela. Herriko taldeek egiten duten lana bultzatu beharra baitago.

“Kiroldegi berria egiteko onartu den aurrekontua gehiegizkoa da”

JUAN MARI OKINA
Elorrion bizi den atxabaltarra



Zelakoak iruditzen zaizkizu onartu berri diren Udal aurrekontuak?

Krisi garaian gaudela kontuan izanda, sekulako dirutza iruditzen zait Aretxabaletako Udalak onartu berri dituen kontuak. Egia da, ez dakigula zeintzuk diren udalaren diru sarrera nagusiak, ezta zein den udalak duen zor maila ere, eta hortaz ganorazko iritzi bat ematea ez da erraza. Esango nuke inbertsioetarako bideratutako dirua, eta batez ere kiroldegi berria egiteko onartu den aurrekontua gehiegizkoa dela. Uste dut irizpide estetikoek funtzionalek baino garrantzi handiagoa izan dutela proiektu honetan. Dirutza horrekin kirola egiteko bono merkeagoak jarri ditzake udalak. Era berean, askotxo iruditzen zait herritarrak kiroldegirik gabe uztea hiru lau urtez.

Zentzu horretan, beste planteamendu bat hobetsiko nuke, eta berria eraikitzen zuten bitartean zaharra irekita mantenduko nuke.

Zer gaineratuko zenioke aurrekontuari?

Ez dut iritzia emateko nahikoa irizpide, baina uste dut aurrekontuek ez dietela atxabaltarren benetako beharrei erantzuten. Ez dakit zeintzuk izan diren udalak erabili dituen irizpideak aurrekontuak egiteko, baina uste dut ez dituztela herritarren iritziak kontuan hartu.

Zer dago soberan?

Ez nuke esango ezer dagoenik soberan, baina deigarria iruditu zait kultura arloan udalak kudeatzen duen aurrekontua.

Herritarren babesean bidea eginez

ARATZ ELKARTEA 1992AN SORTU ZEN ARETXABALETAN. HERRITARREN BABESEAN ETA ATZEGI ERAKUNDEAREN ITZALEAN ERRONKAZ BETERIKO ETORKIZUNARI EGIN NAHI DIO AURRE.



A tzer a begiratu eta 1960ra jo beharra dago Aratz elkartearen sorrera ulertzeko. Urte hartan sortu zen Atzegi elkarte a Gipuzkoan, eta bailaraz bailara eratu zen. Gure ibarrean eta lurralde historiko osoan Bergara erreferentea zen adimen urriko pertsonen integrazioaren alde bertan egiten zen lanagatik. Besteak beste, San Migel Patronatuak eskola bat jarri zuen abian eta adimenez atzerapena zuten pertsonak etxetik atera zituen. "Urtetan landutako hazia fruituak ematen hasi zen, eta 1982an Gureak tailerrak sortu ziren Bergaran. Hezkuntza berezia eta lana uztartzen ziren, aukera berriak eskainiz gure senitartekoei". Atzegi erakundeak Gureak tailerraren kapitalaren %51 eskuratu zuen, proiektua sendotuz. "Aretxabale-takook harreman estua genuen Atzegi-rekin, haiekin hitz egin eta aukera ikusi genuen herrian talde propioa sortzeko. Horrela sortu zen Aratz elkarte a 1992an".

Urteak pasa ahalean, hezkuntzan ere

beste zenbait aldaketa egin dira, hezkuntza bereziko eskolak kendu eta ohiko sistemara bideratu dituzte adimenez atzerapena duten haurrak. "Aldaketa horiek guztiak balio izan dute adimen urriko pertsonen bizitza kalitatea hobetzeko".

"Aratz elkartearen urte goxoenak jaialdien garaikoak izan ziren, herritarren berotasuna sentitzen genuen eta Zaria zineman egiten genituen ekitaldietan gure lanak atxabaltarron errekonozimendua jasotzen zuen", nos-talgiaz baino poz handiz gogoratzen ditu Jokin Antxiak Aratz taldearen garairik emankorrenak.

Zariaiko jaialdien garaia

Hasierako urteetan Aratz elkarte a kideek hilero egiten zituzten bilerak, "motibatu egiten ginen eta egitasmoak antolatzen genituen", Jokin Antxia Aratz elkarte a idazkariak gogora ekarri duen modura, urterik emankorrenak, goxoena eta ederrenak izan ziren Aratz elkartearentzat. Zaria zineman antolatzen zituzten jaialdiek Gipuzkoa osoan izan zuten oihartzuna eta beste talde askorentzat eredu bilakatu ziren. "300 herritar baino gehiago erakartzen genituen Zariaira eta askok kolaboratzen zuten gurekin. Taldearen finantzaziorako eta gure proiektua gizarteratzeko oso inportanteak izan ziren jaialdiak". Aratustetan ere antolatzen zituzten ekintzak, "gogoratzen dut behin Goenkalekoak etorri zirela guk gonbidatuta. Herritarrek gauzak egiteko eskatzen ziguten eta guk gustura egiten genituen". Oraindik ere, elkartearen egoitzan dute Goenkaleko aktoreek Aratzekoei sinatutako dokumentua.

Lokalaren erosketa

Taldearen beste une inportantea izan zen lokala erosi zutenekoa. Elkartearen egitekoa sendotu eta aukera berriak eman zizkien. "Herentzia handi bat jaso genuen eta Atzegiri eskatu genion dirua inbertitzeko Aretxabaletan. Atzegiren eraikina egiteko aukera izan genuen Diputazioaren laguntzarekin batera", dio Jokinek. Gaur egun hamahiru familia ari dira lanean Aratz elkartearen, "batez ere aisiaren kultura indartu nahi dugu, gure senideek ikas dezaten tarte libretan gozatzin". Asmo horiekin azken bi urteotan film laburrak egin dituzte eta Italiako zine jaialdi batean parte hartu dute.

Elkartearen egitekoa sendotu eta aukera berriak eman zizkien Durana kaleko lokalak

Film laburrak eta Italia

Italiako abentura kasualitatez sortu zen, "lanetik ezagutzen nuen italiar bat film laburren inguruan eta lanean ari zena. Ideia ona iruditu zitzaigun eta hango esperientzia gurera ekartzea erabaki genuen", eta horrela hasi ziren Aratz elkarteak film laburrak grabatzen. "Esenatoki natural ederrak, aktore onak eta gidoi txukunak baditugu, baita gogoia ere".

Dagoeneko bi film labor egin dituzte eta Italian egiten den zine jaialdi batean zerbait sari irabazi dituzte. "Autobusa hartu eta kilometro mordotxo egin ditugu azken urteotan Italianantz, hori da eta gure senideek eskatzen digutena. Ez dira nekatzin eta beti nahi dute gehiago. Gainera sariak ere irabazi ditugu eta horrek asko motibatzen ditu". Antxiarentzat konstantzia da aurrera egiteko giltza nagusia. "Gauzak antolatzen jarraitu behar dugu, kalean egoten, autonomien egunean txosna jarri eta beste zenbait egitasmo bultzatu. Hori baita gure elkartearen arrakastaren oinarri nagusia".

Etorkizuneko erronka nagusiak

Etorkizuneko erronka eta helburu nagusiak ondo finkatuta dituzte Aratz elkarteak ordezkariak. "Atzegizale moduko proiektuak sendotu behar ditugu, izan ere, dagoeneko zortzi mila lagun dira atzegizaleak Gipuzkoan. Eta aldi berean, aisiari edo tarte libreari eskaini behar diogu ahalagin berezia. Horretarako txolar-

teek aukera berriak eskainiko dizkiete gure elkarteko kideei", Arrasaten eta Bergaran dagoeneko badaude txolarreak eta ondo funtzionatzen dute. Lokal batzuk dira non zapatu arratsaldetan adimen urriko pertsonak aukera izaten duten elkartzeko eta ekintzak egiteko. "Herri-tarren babesean aurrera egingo dugu beti", gaineratu du Jokin Antxiak.



"Atzegizale moduko proiektuak sendotu behar ditugu, izan ere, dagoeneko zortzi mila lagun dira atzegizaleak Gipuzkoan"

La integración, principal fuente de inspiración

DESDE 1992, ARATZ ELKARTEA LLEVA TRABAJANDO A FAVOR DE LA INTEGRACIÓN DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD PSÍQUICA EN ESTRECHA COLABORACIÓN CON LA CIUDADANÍA DE ARETXABAETA, ORGANIZANDO EVENTOS Y ACTIVIDADES PARA EL DISFRUTE DEL PUEBLO EN GENERAL Y DE LAS PERSONAS DISCAPACITADAS EN PARTICULAR.

La integración en la sociedad de sus familiares y de sus amigos con discapacidad psíquica ha sido la razón de ser y principal fuente de inspiración de Aratz elkartea desde su fundación en el año 1992. Un trabajo no exento de sacrificio y de dedicación, pero que ha dado muchísimos frutos y satisfacciones a sus miembros. Los hitos importantes de Aratz elkartea han sido, sin duda, su fundación hace ahora 17 años de la mano de la asociación Atzegi, que desde el principio estuvo presente y sigue estándolo en el quehacer diario de Aratz, la organización de los festivales anuales en el cine Zeraia que tanta gente atraían y tanto éxito tuvieron en Aretxabaeta, la compra del local de la calle Durana y las

grabaciones de los cortos que están realizando en los últimos dos años.

Optimismo de cara al futuro

En la actualidad, la asociación está trabajando, sobre todo, en el ámbito del ocio, ofreciendo muchísimas alternativas culturales y de ocio a las personas con discapacidad psíquica que forman parte de Aratz. Para Jokin Antxia, secretario de la asociación, es imprescindible ofrecer programas de ocio para que la integración de estas personas en la sociedad sea total. "Durante años hemos trabajado en proyectos relacionados con la educación y el ámbito laboral, y ahora estamos impulsando proyectos relacionados con el ocio para que todos podamos disfrutar de las actividades que

Udal agenda



MARTXOA

IRTEERAK

Martxoak 1
domeka
IZOTZ PISTARA IRTEERA
Algara ludotekak antolatua
7-12 urteko neska-mutil guztientzat
Irteera: 15:30ean AZBEn
Itzulera: 19:45ean AZBEn
Prezioa: 6 euro



Martxoak 21
zapateria
TXAKOLINDEGIRA IRTEERA
Loramendik antolatua
Autobusa+bazkaria, 40 euro
Izena ematea:
otsailaren 24tik martxoaren 13ra bitartean

KIROLA

MENDI IRTEERAK
ANTOLATZAILEA: Zاراia M.T.

Martxoak 8
domeka
SILO DE OKINA-TXABURO-CRUZ DE PATXO. Okina (Araba)

Martxoak 15
domeka
ASTOABURU (801). Oiz (Bizkaia)



KULTURA MARTXOA, EMAKUMEAREN HILABETEA

Martxoak 2
etik 22. ra
ERAKUSKETA
"EMAKUMEAK ANIZTASUNEAN"
Arkupe kultur etxean

Martxoak 8
domeka
EMAKUME LANGILEAREN NAZIOARTEKO EGUNA
(egitarau berezia)

Martxoak 10
martitzena
IKUS-ENTZUNEZKOA
"Kalean uso etxean otso"
19:30ean, Arkupe kultur etxean



Martxoak 11
eguztiena
ANTZERKIA
"Metidas en harina"
19:30ean, Arkupe kultur etxean
Sarrera: Doan



Martxoak 14
zapateria
IPUIN KONTAKETA
Maite Frankoren eskutik
11:30ean, liburutegian
Sarrera: Doan

Martxoak 17
martitzena
IKUS-ENTZUNEZKOA
Mujeres en la diversidad
19:30ean, Arkupe kultur etxean

Martxoak 18
eguztiena
TXISTU EMANALDIA
Leizarra musika eskolako eskutik
18:30ean, Arkupe kultur etxean
Sarrera: Doan

Martxoak 20
21
22
IRRATI TAILERRA
18:00 etan, Gaztelekuan



Martxoak 21
zapateria
HAUR IKUSKIZUNA (+5 urte)
KUKUBILTZO "DIR DIR"
(KORRIKA kulturalaren barruan)
17:00etan, Arkupe kultur etxean
Prezioa: 3 euro

Martxoak 23
tik aurrera
ARGAZKI-ERAKUSKETA
Manolo Urtubi
Arkupe kultur etxean

Martxoak 24
martitzena
KANTAUTOREA
Urko Menaia
19:30etan, Arkupe kultur etxean



Martxoak 25
eguztiena
IKUS-ENTZUNEZKOA
KORRIKA
19:30ean, Arkupe kultur etxean



euskaraz bizi nahi dugunon herrira
Titara-Gasteiz: 09 martxoaren 2004 apirilaren 5era
korrika .aok

Martxoak 26
eguztiena
BERBALDIA
Krisiaren inguruko berbaldia
Urko Lopez hizlariarekin
19:00etan, Udalatxe zaharrean
Gazteendako bereziki interesgarria izango da

Martxoak 28
zapateria
IPUIN KONTAKETA
Vannesa Gonzalezen eskutik
11:30ean, liburutegian
Sarrera: Doan

Martxoak 31
martitzena
IKUS-ENTZUNEZKOA
"Iran, topikoen aurkako bidaiak"
19:30ean, Arkupe kultur etxean